


# Mapa eta errealitatea ez datoz bat

Eskaerak hainbat modutakoak dira. Batzuek administrazio eremuen banaketa bertan behera utzi eta euskara Nafarroa osoan ofiziala izatea eskatzen dute. Beste batzuek jakineko eskualdeak eremu batetik bestera aldatzeko aldarria egin dute. Eremu erdaldunekoak izanda, D eredia eskola publikoan onartzeko ahaleaginean ari dira bestetzuk. Goitik behera ala behetik gora, baina Nafarroako Gobernuari bultzaka beti.

## ONINTZA IRURETA

NAFARROAKO HIZKUNTZ EREMUEN MAPA

GROS I LLADŌSEN PROPOSAMENA



**1985ko legearen arabera eremu mistoan dauden udalerriak:**

Abartzua, Agoitz, Antsoain, Artibabar, Atarabia, Atetz, Barañain, Berriobeiti, Berrizor, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguasibar, Eaurieta, Erronkari, Espartza, Etsaeri, Etsauri, Ezkarotza, Gierde, Gares, Gesalatzta, Goñibar, Gortza, Itaurieta, Inufaltza Zendea, Itzaltzu, Izaba, Jaiz, Lezaun, Lizama, Lizainbar, Odieta, Olabar, Ollaran, Oloibar, Oñza Zendea, Orkoien, Oronotz, Otsagabia, Sartze, Uhartea, Urzainki, Uzterroze, Xulapain, Zabaltza, Ziritza, Zizur Nagusia, Zizur Zendea. Azkenaldian eremu ez-euskaldunetik mistora igarotzeko eskaerak areagotu dira.

Miquel Gros i Lladŏsek, euskararen eboluzioa kontuan hartuta, eremu euskaldunetan ondoko eskualdeak jarriko lituzke: Estellerian hiru Arneskoak-Alin eta Lizamaidea, Inuferrian Etsauribar eta mendebaldeko eta iparraldeko arroak, Pirinioetan Agoitz, Espartza eta baita Eronkari eta Inurberri ere. Eremu mistoan honakoak sartuko lituzke: Pirineo zonaldeak eta Inuferritik falta diren eskualdeak, alegia, Itzagaondoa eta hegoaldeko arroa; Erdi-ekialdeko zonalde gutxiak Argi Beherea kenduta eta Estelleriaren gainekoak Los Arcoak eta Agular ibarra kenduta.

## Euskararen Foru Legea aldatzeko saiakerak

*Paula Kasares, NaBaiko parlamentaria*

1980an, Foru Parlamentuak euskararen ofizialtasunaren ebazpen bat onartu zuen: "Euskara eta gaztelania Nafarroako hizkuntza ofizialak izanen dira". Halere, Estatuarekin Madrilerako negoziatzera joan zen Foru Parlamentuaren batzordeak ez zion ebazpen horri eutsi eta 13/1982 Lege Organikoak ez zuen euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako aitortu. Badirudi Nafarroan euskara komunitate osoan ofiziala izan beharrean, eremu batzuetan baino ez izatea, Nafarroako Batzordeak berak proposatu zuela, hau da, nolabaiteko burumurrizketa izan zela.

Eta hori egin zen lehenik, Nafarroako Foru Parlamentuak emandako ebazpenaren kontra eta, bigarrenik, zonifikazio horren alde inolako ikerketa soziolinguistikorik edo oinarri edota argudio zientifikorik izan gabe.

1986ko bukaeran Nafarroako Parlamentuak 18/1986 Foru Legea, Euskarari buruzkoa, onartu zuen. Legea ez zen adostasun giroan onetsi, ez Nafarroako Parlamentuan ez eta gizartean ere.

Euskararen Foru Legea indarrean sartu zenetik orain arte hiru izan dira Nafarroako Parlamentuan eztabaidatu diren legea aldatzeko saiakera nagusiak.

✓ 1992an, UPNren agintaldian, Nafarroako Parlamentuko Partido Socialista de Navarra (PSN), Nafarroako Ezker Batua (NEB) eta EA EFL aldatzen saiatu ziren eremu ez euskaldunetan ere euskarazko irakaskuntza bermatze aldera. Funtsean eskatzen zena hau zen: EFLaren 26. artikulua (Irakaskuntza eremu ez euskaldunetan) ezabatu eta 25.a (Irakaskuntza eremu mistoan) bietarako uztea. Baina saiakerak ez zuen ondorioz ekarri. Oposizioan zeuden alderdiek (PSN, Herri Batasuna (HB), EA eta NEB) irizpide eta krite-

rio hagitik bertzelakoak baitzituzten. Azkenean, UPNk eta HBk kontrako botoa eman eta aldaketa ez zen onartu. Eztabaida parlamentu alderdiek euskararen inguruan zituzten jarrera eta diskurtsoen agerraldi esanguratsua izan zen. Funtsean, hamabortz urteren buruan bere horretan dira.

✓ Joan den legegintzaldian hizkuntza politika instituzionalaren gainean eztabaida politiko luzea izan zen Nafarroako Parlamentuan. Parlamentuak ponentzia egin zuen 2004ko ekainetik 2005eko apirila bitartean Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Politikaren garapena aztertzeko. Ponentziaren azken txos-

**UPN-CDNren Gobernuak EFLaz orain  
artioko interpretazioa aldatu du. Orain  
EFL ez da traba, eskaria baldin badago  
eta Gobernuak nahi badu eremu ez  
euskaldunetan D eredua zabal daiteke**

tenaren ondorioek ez zuten Parlamentuko indar politikoen babesa bildu eta hilabete anitzeko prozesuaren emaitza euskararen estatusaren inguruan Nafarroan ditugun ikusmolde eta jarrera uztargaitzen bertze antzezpen bat baino ez zen izan. Saiakera eta egitasmo zapuztua izan zen, euskaldun eta euskaltzale antzondako ponentziaren emaitza-aholkuak murrizak izan baitziren. Hizkuntzari dagokionez aurrerapauso izan zitezkeen proposamen interesgarri batzuk (Iruñerriko zonifikazioaren muga berrikustea, eremu ez euskalduneko ikastolak legeztatzea, Lanbide Heziketan euskararen erabileraren handitzea, helduen euskalduntzeari laguntzea) bildu bazituen ere, atzera jotze gehiagoren mamu berriak ere ekarri zituen: zonifikazioaren berrestea, D eredua ahultzea xede izanen duen politika instituzio-

nalaren aholkatzea eta NUPen elebakartasunaren defentsa.

Euskararen Legea aldatzeko bertze saiakera bat izan zen, baina Convergencia de Demócratas de Navarra (CDNk) eta PSNk kontra bozkatu zuten. Carlos Cristobalek izan zuen ponentziaren azken dokumentua idatzeko ardura. Cristobalek berak defendatzen zuen eremu mistoa zabaltzeko aukera ez zen onartu.

✓ Orain, VII. Legegintzaldi honetan, NEBk egindako proposamenen Carlos Cristobalen proposamena izan zena berreskuratu du. 2007ko azaroan NEBk Euskararen Foru Legearen 5. b. artikulua aldatzeko proposamena egin du. Artikulu horrek eremu mistoan sartzaren diren udalerririk zerrendatzen ditu. NEBk egun Iruñerrian, baina eremu ez euskaldunetan dauden Aranguren, Beriain, Galar eta Elortzibar udalerririk eremu mistoan sartzeko eskatu du.

Nabarmena da azken saiakera hau urruti dagoela orain 16 urte proposatu zen lege aldatetarik. Baina bada kontuan hartu behar den elementu bat: Carlos Pérez-Nievas Hezkuntza kontseilariak iragarri du heldu den ikasturtean (2008-2009an) Iruñerriko eremu ez euskaldunetan geratzen diren udalerririk horietan D ereduko gelak zabaldu ahal izanen direla. EFL ukitu gabe. Erabaki horrek agerian uzten du UPN-CDNren Gobernuak EFLren gainean orain artioko interpretazioa aldatu duela. Hau da, egungo interpretazioarekin EFL ez da traba, eskaria baldin badago eta Gobernuak nahi badu (hau da, borondate politikoa badago), eremu ez euskaldunetan D eredua zabaltzeko.

Dena den, interpretazio aldaketa hori bera argudio gisa erabiltzen ahal du UPN-CDNk EFLaren zonifikazioa aldatu beharrik ez dagoela defendatzeko.

**BULTZAKADA HORIETAKO BAT** eman du Miquel Gros i Lladósek, bere erara. Katalan abokatuaren zaletasunetako bat da soziolinguistika eta Iruñean hamar urtez bizi izan zela baliatuz *Recuperación del euskera en Navarra* liburua argitaratua du, Euskaltzaindiaren eskutik. Gros i Lladósen asmoa izan da, Nafarroan euskarari buruzko eztabaida parametro eta etorkizunerako aukera errealean oinarritu dadila. Haren ustez, hedabideek eta administrazio erakundeek azaltzen duten errealtatea urrun dabil panorama benetako horretatik. Gros i Lladósek euskararen datuak aztertu ditu eta horien arabera, hizkuntza eremu banaketa berria proposatu du, eremu euskaldunetan eta mistoan eskualde gehiago sartuz.

### “Euskararen presentzia” eta eremu banaketa

Grosen ahalegina Nafarroan euskararen ezagutza aztertzea izan da. Horretarako 1986, 1991, 1996 eta 2001eko erroldak aztertu ditu. 2006ko datuak liratekeenaren hipotesia egin du euskararen neurgailua ez baitzuen aplikatu Nafarroako Gobernuak ordukoan. Nafarroako 44 eskualdeak kontuan hartu eta udalez udal aztertu ditu nafarren euskararen ezagutza neurtzen zuten datuak. Berak “euskararen presentzia” izena eman dio aztertutako datuari eta bi subjektu mota batuta atera ditu datuok. Batetik, baskofonoak ditu kontuan, alegia, euskaraz edozein abildade duen nafarra; euskara ulertze soilak balio du. Baskofonoei euskaldunak batu dizkie, hau da, inkestan euskara ondo egiten dutela esan dutenak.

Udal bakoitzean 21 urtez euskarak izan duen eboluzioa kontatzeaz gain

1986ko Euskararen Legeak ezarritako eremuen banaketari erreparatu dio, eta gogoratu du urte hartan Nafarroako Gobernuak hiru eremuen banaketa nola egin zuen. Labur esanda honela: euskararen ezagutza %10 baino gehiagokoa zen udalak eremu euskaldunetan, %5 baino gehiagokoak eremu mistoan eta %5 baino gutxiagokoak erdaldunetan.

### 1986ko mapa errebisatu

Gros i Lladósek ikerketari esker ateratako datuak kontuan hartuta eta Nafarroako Gobernuak eremu banaketa nola egin zuen ikusita, proposamena egin du: Gobernua, nolabait, Gros i Lladósek landutako “euskararen presentzia” moduko elementu batean oinarritu zen eremu banaketa egiteko. Elementu horrek, euskararen ezagutza, 21 urtean gora egin du, eta batik

### 1986ko mapa errebisatu beharra dago Gros i Lladósen ustez, gaur egungo egoerarekin alderatuz desfasatua baitago

bat, ikustekoak dira 25 eta 15 urtetik beherako nafarren datuak. Beraz, 1986ko mapa errebisatu beharra dago bere ustez, gaur egungo egoerarekin alderatuz desfasatua baitago.

Eremu euskaldunetan eta eremu mistoan sartuko litzuzkeen udalerrien zerrenda egin du Gros i Lladósek liburuan. Eremu euskaldunetan ondokoak jarriko litzuzke: Estellerrian Ameskoak-Allin eta Lizarralde, Iruñerrian

Etxauribar eta mendebaldeko eta iparreko arroak, Pirinioetan Agoitz, Espartza eta baita Erronkari eta Iruñerri ere. Kalkulatzen du eskualde horietan euskarak %20ko presentzia lortuko zuela 2006rako (urte hartako daturik ez zuen). Eremu mistoan honakoak sartuko litzuzke: Pirineo eskualdetik eta Iruñerriatik falta diren eskualdeak, alegia, Itzagaondoa eta hegoaldeko arrea; Erdi-ekialdeko eskualde guztia Arga Beherea kenduta eta Estellerriaren gainerakoa Los Arcos eta Aguilar ibarra kenduta. Eremu erdaldunetan geratuko lirateke, beti ere katalanaren arabera, Erriberako eskualdeak eta erdialdeko eskualdeko hego-ekialdeko zati bat. Lurralde horietan euskarak ez du %10a eta ez dirudi aurki portzentaje horretara heletzea lortuko dutenik.

Gros i Lladósen ustez, ikerketa eskuan, euskara garai historiko okerrenak nozitzen ari zenean ere, indarra hartzen ari zenaren datuak daude. Mendez mende behera zetorren euskara eta XX. mendeko azken laurdenean 50.000 hiztun baino ez zituen euskarak. Europar beste hizkuntza prozesu batzuei gertatu bezala, bazirudien osagai guztiak zeudela Nafarroan euskara galtzeko arriskuan egoteko. Ez da hala gertatu ordea. Gros i Lladósen esanetan ez gaude azken hiztuna hil zain, areago, Nafarroan euskara ez da moteldu eta ez dago besterik gabe bere horretan. Euskara gora egiten ari da, eta gorako prozesua azkartu egingo da gainera etorkizunean. Belaunaldi bat barrurako itxaropena handia da. Liburuaren egilearen ustez, euskarak gizarteak uste duena baino orain eta etorkizun hobeak ditu Nafarroan. ■

